

# Prensa oharra

## Nota de prensa



### Lilaton lasterketak trafiko aldaketak eragingo ditu hirian

*Boulevard zumardia itxita egongo da 07:15etik 11:45era martxoaren 6an*

Datorren igandean Lilaton lasterketaren 32. edizioa ospatuko da 10:30etik aurrera. Boulevard zumardian hasi eta amaituko da eta 5 kilometrotako ibilbidea izango du, 2020an egin zen berbera. Erdialdetik eta Grosetik igaro ondoren, 11:45ak aldera amaitzea aurreikusten da.

#### **Ibilbidea**

10:30ean lasterketa Boulevard zumardian hasiko da eta honako kaleetatik igaroko da: Hernani – Askatasunaren hiribidea - Urbieta (ezkerrerako biraketa) - Prim - San Martin-Foru pasealekua – Espainia plaza – Argentinaren Errepublika (eskuinerako biraketa) – Kursaal zubia – Zurriola hiribidea – Nafarroa hiribidea (180º tako bira) – Rodileko biribilgunea - Nafarroa hiribidea - Zurriola hiribidea - Kursaal zubia – Erregina Erregeordea – Boulevard.

Zirkulazio mozketak irekitzen joango dira lasterketa pasa ahala, Boulevardeko helmuga izan ezik.

#### **Afekzioak**

07:15etik Boulevarda ibilgailuentzat itxita egongo da lasterketaren irteera eta helmuga dorrea jarri ahal izateko. Ibilgailuak Legazpi kaletik desbideratuko dira.

09:30etik Parte Zaharreko egoiliarrek kale hauetatik igaro beharko dute Kaira iristeko: Mari – Portu – Nagusia – Abuztuaren 31 – Aldamar.

#### **Ibilgailuentzat itxitako bideak**

Trafikoari itxitako bideak edo garraio publikoa bakarrik ibiliko diren bideak

- Zurriola hiribidea (Ategorrieta noranzkoan): aparkalekueetatik sartzen den trafikoa
- Nafarroa hiribidea (Ategorrieta noranzkoan): guztiz itxita
- Nafarroa hiribidea (Erdialderantz): auzo barruan dauden ibilgailuak

Probaren hasieran, lasterketak irauten duen bitartean, bide hauek zirkulaziorako itxita egongo dira: Boulevard (Legazpitik), Hernani, Askatasunaren hiribidea, Easo, Zubieta,

# Prensa oharra

## Nota de prensa



Foru pasealekua (etxebizitzak dauden aldea), Argentinaren Errepublika, Zurriola hiribidea, Erregina Erregeordea, San Martín (Mirakontxa eta Foru pasealekuaren artean), Prim eta Urbieta.

### **Autobusak**

Autobusetako ibilbide eta geralekuetan hainbat aldaketa egingo dira. (Oharrak atxikitzen dira)

### **Lurpeko aparkalekuak**

Lasterketak irauten duen bitartean, lurpeko aparkaleku hauetarako sarbidea erabat itxita egongo da, baina ibilgailuak horrela atera ahal izango dira:

- Boulevard: irteera 9:30tik aurrera egoiliarren sarreratik
- Okendo: irteera Okendotik
- Kursaal: betiko lekutik arretaz atera ahal izango dira
- La Concha: lasterketak irauten duen bitartean ezin izango da Askatasunaren etorbidetik sartu, ezta irten ere.

Donostia, martxoaren 3an